



Dantzari txikien emanaldi bikaina, garai bateko erromerien antzera

TOLOSA ▶ Hendaia, Iruñeako, Galdakaoko eta Tolosako 200 haur aritu ziren erromerian

HELDUAK ▶ Helduenek ere, iluntzean egin zuten erromeria 50 urteetan igaro diren dantzariekin ▶ 6



Bi taldeetan banatuta, herriko kaleak zeharkatu zituzten dantzari txikiek. ESTI EZEIZA



NEREA URBIZU

Bertso Paper Lehiaketan sei gaztetxo aritu dira

ALEGIA ▶ Gazteen mailako irabazleen izenak hilaren 7an emango dituzte jakitera, eta nagusien mailakoak, berri, hilaren 28an ▶ 5



GARBIÑE MENDIZABAL ▶ SETEM-EKO KIDEA

«Jarrera kritikoagoa izan behar dugu erosten dugunarekiko»

SETEM Hego Haizea GKEko Gipuzkoako ordezkari berria da tolosarra ▶ 4

Garbiñe Mendizabal. J.R. / BERRIA

IBARRA ▶

Kantu afariak itxi du herriko lau presoek urtemugako egitaraua

Ekitaldi asko izan dira Ijurko, Aranalde, Aramendi eta Mindegiaga gogoan ▶ 6

UZTURRETIK ▶ BITTOR MADINA

Zahartzaroa



Irakurri zenuen aurreko zutabearen agureak banan-banan jasotzen zituela bere buzoian lapurrak ostutako maitasun kartak. Kontakizunean agurea pertsonaia nagusia izanik, Oñatiko—beno, Arantzazu auzoko—Gesaltzako aitona, Graxiano Anduaga, nahi dut ekarri hona. Ni neu oñatiarra izanik, mutiko nintzela ezagutu nuen. Nekazaria, hiztuna, bertsolaria eta ipuinlari jatorra izan zen. Urte batzuk beranduago, Luis Villasantek, Euskaltzaindiko buru izandako praileak Graxianorekin solasean bildutako kontakizun liburuxkan zahartzaro

fisikoari buruzko olerkitxoak txunditu ninduen. Bata bestearen atzetik jarritako 30 aditz desberdinekin—konta itzazu zu zeuk ere—zahartzaroak edo bizitza berak dakarren ahulezi fisikoaren deskribapen zehatza egin zuen. Baze-kien berak zahartzaroaren berri, 88 urterekin hil baitzen. Hona hemen:

Gizon nekazaria, laster ohi da zahartu, tankera itsusia gorputzak hartu, besoak bihurritu, belaunak okertu, sudurra dindirritu, pausoa baldartu, bizkarrak gailurtu, burua makurtu, musua (aurpegia) kuskurtu, bistia laburtu, belarriak gortu, ahoa bihurtu, zentzuna agortu, adimena lotu, kaskarra lelotu, kokotsa kakotu, lepoa ihartu, azala zimurtu, koipekiak urtu, hezurak agertu, hotzak in beldurtu, eskuak gogortu, beroak izertu, biguna elkortu, gogoa notu, haizea samurtu, ohituraz zabartu,

laguntza behartu, bizitzen aspertu: goitik deitutakoan joateko gertu».

Hori da jarjaria, hori! Mantso-mantso edo kolpeka eta baita ziztu bizian ere irakurri dezakezu. Bietan, xarmangarri egingo zaizu. -tu atzizki edo bukaerarekin egindako aditz puzzle zoragarria da. Buruz ikastekoa da, ba olerkiak errezi-tatzeak badu beti bere magia berezia. Eta musikari batek musikatuko balu...

Ezkortasuna edo pesimismoa nabaritzen omen zaio. Baina, nik uste, naturalki hitz egiten digula Graxianok. Fisikotasunera mugatzen da soilik, egia da. Ahulezia, gainbeheratasuna, etsipena agertzen ditu. Geuk ere, gorputzeko kanpoaldea erakusten dizkigun alderdi edo ondorioetan oinarritzen gara zahartzaroa zer den esateko. Hori normalizat jotzen dugu. Urteak bete ahala edo urteak bizkargaineratzean, hogeita hamar

esalditxo horietatik batzuk banan-banan eta apurka-apurka gehitzen zaizkigula konturatzen gara. «Banoa ni neu ere zahartzen» edota «zahartu naiz» botatzen edo entzuten ditugu. Konturatu gabe, gaztaroa (adina) ezkututzen da, helduaroa bertan gurekin, eta begibistan dugu aurrean teoriz urduri jartzen gaituen azkenaroa. Baina, noiztik da edonor zahartzaroaren menpe? Noiz hasten da zahartzaroa? 60 urterekin? 80kin? Non kokatu fisikoki ondo baina mentalki agure diren gazteak? Non kokatu fisikoki hain ondo ez eta mentalki gazte diren agureak? Hor dago kokka!

Graxianoren azken *goitik deitutakoan joateko gertu* horrek bizitza eta zahartzaroa borobiltzen du. Berarentzat, ziur-rirenik, goiko Batek edo Jainkoak zuen heriotzaren txirrina. Beste askorentzat gorputzak berak du deiaeren txilina. Nola batean hala bestean, *joateko gertu* sentzazio hori lasaigarria izan behar du. Etsipen lasaia eta goxoa. Zahartzaroak berak ematen duen fruitua.

ASTEKO IRUDIA ▶

700 bat mendizale Aizkardiren 38. martxan

Aizkardi elkarteak antolatutako 38. martxak 700 mendizale inguru elkartu zituen, igandean, Amasa-Villabonako inguruetan. Aurten lehendabiziko aldiz, bi ibilaldi prestatu dituzte mendi elkartekoek: luzea, 42 kilometrotakoa; eta motza, 23koa. Hain zuzen ere, 499 mendizale abiatu ziren martxa luzea egitera, eta 483k amaitu zuten. Motzean, berriz, 216 lagun atera ziren, eta 212k amaitu zuten. Aizkardikoen esanetan, «mendizaletasuna bultzatzea» izan du helburu ekimenak, eta «Villabona inguruko leku eta ibilbideak erakustea, betiere natura erabat errespetatuz». Guztira, 30 bat lagun aritu dira antolaketa lanetan, eta «gustura» agertu dira aurtengo parte-hartzearekin. HITZA



iragarki laburrak ▶

LANPOSTUAK

Laborategiak. Hurrengo deialdiak teknikoak, unibertsitate laguntzaileak, ospitaleak. 943 31 37 82.

Mantentze-lanak. Mekanikariak, gidariak. Hurrengo deialdiak udalebte eta Foru Aldundiarentzako.

Informazioa doan. 943 31 37 82.

Elbarrituak. Hurrengo deialdiak Foru Aldundiarentzako. Informazioa doan. 943 31 37 82.

Gipuzkoako Foru Aldundiak behar ditu: sukaldari laguntzaileak, obra zaintzaileak, gidariak,

haurtzaindegiko hezitzaileak, basozainak, garbitzaileak. 943 31 37 82.

Administrari laguntzaileak. Beasain, Bergara, Soralue, Mutriku, Zizurkil, Mendara eta Anoetako udalek administrari laguntzaile

lanpostuak bete behar dituzte. Hilean 1.500 euro. Doako informazioa. 943 31 37 82.

Gidariak. Udaletan eta Foru Aldundian laster lanpostuak. Kontratu mugagabeak. 943 31 37 82.
Garbitzaileak. Lanpostu finkoak:

Eusko Jaurilaritza, ikastetxeak, ospitaleak. Informa zaitez: 943 31 37 82.

Sukaldariak eta sukaldari laguntzaileak. Postu libreak Eusko Jaurilaritza. Asteburuetan libre. 943 31 37 82.

TOLOSALDEKOHITZA.INFO ▶

AHTren lanak
hasteko akordioa
sinatu dute
Madrilek eta
Lakuak.
Zer diozu?

Ezin diegu utzi nahi duten txikizioa egiten.

AMAGOIA ▶

Ba hasi dira, Amagoia! Nola ekiditu nahi duzu hau guztia?

-▶

AHT gelditu! Inposaketarik ez! PNV zertan ari zara?

LEIRE SAIZAR ▶

AHT egitea ez da herriaren nahia! PNV, Euskal Herria ez da zurea; beraz, egin ezazu herriari eskatutakoa. AHT gelditu! Denon artean lortuko dugu.

IÑAKI ARISTETA ▶

420 kilometro inguru AHT Euskal Herrian. Txikizioa naturan. Herriarren gehiengoaren bizibaldintzak txarrera. Nekazaritzan, ekonomian, lurralde oreakan, paisaian... kalte handiak. 6.000 milioi baino gehiagoko gastua. Guztion dirua. Elite politiko-ekonomikoaren negoziarako: PNV-PSOE-UPN-PPren eta energia, porlan, harrobi, eraikuntza... eta garraio enpresari handien poltsikoak. Bidai-txartela ordaindu ahal izango duen hiriburuetakoa gutxiengo baten mesederako. AHT gelditu! Inposaketarik ez! Obrak aurtien hasi nahi dituzte. Egoera larria. Antolatuta eta erantzun! Kapitalismoaren aurka. Bestelako ekonomia, garapen eredu baten alde. Mundu berri baten alde. Jendartearen eraldaketa sozialistaren alde. Jo ta ke! Irabazi arte!

MANU ▶ ANOETA

Nire lagunaren etxetik pasatzen da.

NORA AMAIA ▶

Txikizioa zer den ez dut ulertzen: Nafarroako autobidea ere hala zen (nork kenduko luke?), eta naturari ez dio inolako eraginik egin; bizi garen lekuak ere (etxebizitzak) txikizioa dira naturarentzat (Tolosako bailara zein polita litzatekeen etxebizitzarik gabel); erabat urbanizatua daukagun lurraldean txikizioz mintzatzeak ez du koherentziarik. Beste kontua da, gainera, garraioaren arazoa nola konpondu: ezer egin gabe ez da konponduko; bestela, jendea ez mugitze esan behar harko zaio. Inposaketa zer den ere ez dut ulertzen.

-▶

Herriaren nahia zein den bazuk esatea, hori bai irizpide demokratikoa! Herriaren ordezkaria nor da?

-▶

Kamioiek sortzen dituzten kalte ekologiko guztiak, nork ordainduko ditu? Kamioiak gelditu. Kotxeek sortzen dituzten kalte ekologiko guztiak, nork ordainduko ditu? Kotxeak gelditu. Bonbak jartzeak sortzen dituen kalte ekologikoak, nork ordainduko ditu? Bonbak gelditu.

-▶

Eta zer egingo dugu kotxe eta kamiorik gabe?

-▶

Galdere oso generikoa da. Ni AHT sareen alde nago, baina... ez gaur egun proposaturik dagoen ibilbidearen alde. Trenari bultzada bat eman behar zaio, adibide bat: Zumarragan eta Olaberriaren Arcelor talde siderurgikoaren bi lantegi daude. Lantegi hauetara Pasaiaiko portutik milaka txatarra tona

garraiatzen dira. Zama hau guztia mugitzeko kamioiak erabiltzen dira, nahiz eta bi altzarutegi hauen ateetara tren sarea iritsi! Zenbat CO2 gutxiago isuriko litzateke garraio hau trenez eginez gero? Zenbat kamioi aterako lirerate N-1 errepidetik? Galdera hauek Foru Aldundiari askotan egin dizkiot. Noski, inoiz ez dut erantzunik jaso, soilik estraofizialak... Pasaiaiko kamioilariak akabatuko gintuzkete! Niretzat trenaren bultzada bat bi altzarutegi hauei trena erabiltzera derrigorrez litzateke. Bestalde, Euskal Herrian U itxurako AHT tren sarea eraiki beharko litzateke eta ez Y itxurakoa.

HAIZE ▶

Zergatik sartu eztabaida honetan bonbak? Ez al daukazu beste argumenturik? Beti horrekin astea ere...

UNAI ▶

Bonbak eztabaidan sartzea txikizioari lotuta dago. Zergatik txikizioaz hitz egin, gu bizi garen lekuan txikizioa eginda badago. Argudioak hain argiak dira, ezen ez dago eztabaidatzerik. Beharrak beharrak dira, eta naturari egiten zaion kaltea, apenaskoa da. Nekazal lurra defendatzen hasteko garaia bada, noski, baina ez trenbideari errua botaz; hainbeste etxebizitza bakarkako eraikitzeak txikizio gehiago eragiten dute, baina inork ez du kontra egiten. Bestalde, Nafarroako autobien historia dakigunok, badakigu bonbetaz zerbait.

JOSEBA ▶

Kuriosoa da. Inkesta honetan gehienak AHT egitearen aurka daude, baina zergatik inork ez du esaten. Txikizioa naturan? Kalte handiak? Bizi-baldintzak txarrera? Batzuen mesederako bakarrik? Nahiko nuke norbai-

tek zerbait argitzea, ez baitakit ezer eta jakin nahi nuke esapide horiek guztiak zertan gautzen diren eta zer esan nahi duten Tolosaldean.

-▶

AHT ez gelditu! Behar-beharrezkoa da! Garrantzitsuagoa da Euskal Herriko bi mendi ez suntsitzea Euskal Herria komunikatuta egotea baino? Hori uste duenak hausnar dezala. Ezer ez da ona ez txarra, denak du bere alde ona zein txarra, baina horrelakoetan teknologia geratzen badugu, ez dugu aurrera egingo!

-▶

Ez dakit enteratu zaretzen baina Nafarroako Gobernu faxista hau Aralar zulatzeko asmotan dabil AHT igartzeko. Nik uste ez dela beharrezkoa, orain dugu tren zerbitzuak hobetuz gero nahikoa litzateke. Baina badakizu obra horien kontura zenbat alperrek beteko dituzten poltsak gure diruarekin! Utzi bakean Aralar, Sakana, Nafarroa eta Euskal Herria!

XABI ▶ LAKUNTZA

Onartzen duzu oraingo trena ondo dagoela dagoen lekuan eta egoeran. Jakin ezazu hori egin zuten garaian kontrakoak ere bazirela, egun aipatzen diren argudioen antzekoak emanez. Orain inork zalantzan ez du jartzen dagoen trena; etorkizunari begira, bere horretan utzi eta kitto? Hobetu gabe? Zer esan hemendik 50 urtera?

JOSEBA ▶

AHT beharrezkoa da! Leitzarango autobidearekin gauza bera gertatu zen eta azkenean bai kontrakoak bai aldekoak erabiltzen dute. Beraz, AHT egingo dute eta kontratan daudene erabiliko dute! Ez izan hipokrita!

ITZIAR ▶

ESANAK ▶



MIKEL NIEVE
TXIRRINDULARIA

«Denboraldi honetan nire helburu nagusia Bidasoako eta Nafarroako itzulietan aurrean izatea da. Lasterketatan ondo ibiltzea da xedea, eta gero iritsiko dira erregulartasunaren sariak»

«Normalean Iñigo Sagastibelza leitzararekin entrenatzen naiz. Doneztebe aldera joaten naizenean Atxarekin eta Bertizekin elkartzen naiz. Iruñea aldera ere joaten naiz batzuetan. Eugenio Goikoetxea kirol zuzendaria ere Leitzakoa da, eta hori ona da niretzat»

'El Diario Vasco'
(2006-03-28)

hitza

lagunen
txokoa

▶ HITZAREN HARPIDEDUN
TXARTELAREKIN %5*-eko
BEHERAPENA izango duzu
zure EROSKETETAN

*Promozio hau ez da beste beherapenei gehituko eta eskura ordaindutako erosketetan bakarrik aplikatuko da

▶ Txartela HITZAREN harpidedun ordaintzaileek bakarrik eskuratuko dute; deitu **943 30 43 46** telefono zenbakira

Egin zaitez harpidedun!

DENDA HAUEK HITZA-REN LAGUNTAILEAK DIRA

Avalon
o s a g a i a k
korreo, 11 • Tolosa • Tel.: 943 67 51 02

honetekin

TOLOSA
Tel.: 943 67 22 44

kanikak

San Frantzisko, 21 • Tolosa
Tel.: 945 65 27 46

Gudari kalea, 5 • TOLOSA
Tel.: 943 65 04 62

ILUMINAZIOA

SHANTI KIROLAK

Rondilla, 11
TOLOSA
Tel.: 943 67 40 74

MUGAR

Nafarroa etorb. 16 • TOLOSA
Tel.: 943 65 56 85

LIZARRIBAR
OINETAKOAK
Arostegieta kalean
TOLOSA

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAREN harpidedun ordaintzaileen artean zozketak astero

GARBIÑE MENDIZABAL ▶ SETEM ERAKUNDEKO GIPUZKOAKO ORDEZKARIA

«Arduratsu izan behar dugu erosten dugunarekin eta gure bizimoduarekin»

Gizartearen sentsibilizazioa jorratzen duen SETEM Hego Haizea Gobernuz Kanpoko Erakundeko Gipuzkoako ordezkaria da Garbiñe Mendizabal tolosarra

INIGO TERRADILLOS

SETEM Hego Haizea Gobernuz Kanpoko Erakundeko (GKE) Gipuzkoako ordezkari berria da Garbiñe Mendizabal (Tolosa, 1976). Publizitatean lizentziatua, eta Nazioarteko Gizalaguntzan berezitua, hainbat komunikabidetan (*Tolosaldean Eguneroko* egunkarian ere aritzen) eta erakundetan lanean aritu ondoren, Gobernuz Kanpoko Erakundeetan murgiltzea erabaki du, batez ere, sentsibilizazioaren alorrean.

Gipuzkoan SETEMek ireki berri duen bulegoan ordezkari gisa ari zara orain.

Bai, hala da. Gipuzkoan gure ekintzak nahikoa ahulduta zeuden eta Foru Aldunditik jaso dugun diru laguntzari esker ordezkari berria abian jartzea lortu dugu. Boluntario talde bat gara; izan ere, SETEM boluntariotzat oinarritutako taldea da. Jende horren borondateari esker egin dezakegu aurrera gure asmoetan. Orain, lurralde honetan gure ekimenak areagotzea da gure helburua.

Zein dira ekimen horiek, eta zer lortzeko asmoa dute?

Beste hainbat erakunderen moduan, Garapenerako Lankidetzak bultzatzen dugu, baina sentsibilizazioari eta heziketari ematen diogu garrantzirik handiena. Herritarrok dugun bizimoduaz kritika egitea bilatzen dugu.

Nola lortzen da hori?

Sentsibilizazio kanpaina ezberdinetan parte hartzen dugu. *Arropa Garbia* kanpainak, esaterako, Iparraldean jantzen dugun arropa egiten duten Hegoaldeko langileen



HITZA

GOBERNUAK

«Batetik, herrialde txiroak diruz laguntzen dituzte; bestetik, kanpo zorra eskatzen diete. Kontraesana dago hor»

lan egoera salatzen du; herritarrei langile hauen lan baldintzak nolakoak diren azaltzen dizkiegu, edota lantegi handiak presionatzen saiatzen gara lan gardena izan dadin eta konbenioak bete ditzaten.

MULTINAZIONALAK

«Gure multinazionalak eraginda, herri txikiak laborariek hiriburuetara jo behar izaten dute»

Inditex eta Adolfo Dominguez bezalako lantegien akzioak erostea ekintza garrantzitsua izan da, modu horretara akziodun batzarretara joateko aukera dugulako, langileen eskubiak bermatu asmoz. Induyco

(horren barruan dago El Corte Ingles) enpresaren informazioa ere zabaltzen ari gara kontsumitzaileei, eta sinadura bilketa jarri dugu abian lantegiko arduradunei gardenagoak izan daitezen exijitzeko. Bestalde, *Bidezko Kafea Har Dezagun* kanpainarekin ere ari gara lanean. Bidezko Merkataritzak kafea ekoizten duten Hegoaldeko herrialde eta pertsonen beren kafearen truke salneurri bidezkoa eskaintzen die, baldintza duinetan bizi ahal izango direlarik, kanpo laguntzen beharrik gabe; eta guk, hori bultzatu nahi dugu, hau da, kafe makina badago, bidezko merkataritzarena izan dadila. Hainbat leku publikotan hasiak gara kafe makinak jartzen.

Gizarteak nola erantzuten du honen guztiaren aurrean?

Azkenaldian kontzientzia berpiztu dela esan daiteke. Jendea konturatu da erosteko garaian boterea dugula enpresa bat zigortzeko, bere produktua erosi ala ez guk hautatzen dugulako. Gure lana lantegi handiei buruzko informazioa ematea da, kontsumo arduratsu bat sustatzeko, eta uste dugu pixkanaka gero eta garrantzi handiagoa ematen zaiola honi. Hala ere, zailena jendeak jarrera kritiko hori izan dezan lortzea da. Esperantza dugu, erantzukizun sozial hau zabaldu eta jendea arduratsuago izango dela erosten duenarekin eta duen bizimoduarekin.

Gobernuek ere izango dute zeresana.

Herrialde aberatsetako gobernuek produktu gordinareneko %0'7 herrialde txiroei laguntzeko bideratuko zutela adostu zuten, baina hori ez da bete-

‘Egin bidea mundua alda dezagun’

1991. urtean eratu zen SETEM Hego Haizea Euskal Autonomia Erkidegoan, irabazi asmorik gabe herrialde txiroen alde lan egiteko ekintzak bultzatu asmoz. Heziketaren, gure gizartearen sentsibilizazioaren eta Hegoaldeko herrietan aurrera eramaten dituzten proiektuen bitartez Garapenerako Lankidetzak bultzatzen duen euskal GGKE da. Iritzi publikoan herrialde txiroen errealitatearen inguruan formazioa eta sentsibilizazioa sustatzea, bilgune eta foro kritikoak izatea bidegabekoak diren egoerak salatzea, Hegoaldeko herriekin garapen proiektuak proposatzea, bideratzea eta kudeatzea eta euskaldunen artean borondatezko lana bultzatzea dira, besteak beste, lantzen dituztenak. ◀

tzen, eta askoz txikiagoa da benetan ematen duten laguntza. Gainera, batetik diruz laguntzen dituzte, eta bestetik kanpo zorra eskatzen diete. Hor kontrastea handia dago.

Hainbat Gobernuz Kanpoko Erakundeetan aritu zara, eta ederi ezagutzen dituzu herrialde txiroen eta aberatsen artean dauden desberdintasunak. Zein izan da bizitu duzun edota ezagutu duzun egoerarik zailena?

Niretzat egoera zailenak herrialde txiroetako hiriburuetan aurkitzen direnak dira. Herri txikiak bizi diren laborariek multinazional handiek eraginda euren negozioak nola desageratzen diren ikusten dute; eta, ondorioz, hiriburuetara jo beharra izaten dute aurrera egin ahal izateko. Eta han sortzen dira arazoak, dirua ikusten baitute, eta edozer egiten dute lortzeko. Gure multinazionalak sortutako egoera dela jabetzea oso gogorra da.

GURE ESKUBIDEEN ALDEKO KONPROMISO SENDOA
 EUSKAL HERRIEN NAZIOARTEAN
 APRILAK 16
 EKITALDI NAZIONALA
IRUÑEAN
 HERRITAN EKITALDIK

Buldain
 INMOBILIARIA

- Leitzan hiru logelako etxebizitza salgai, 27.500.000 pzta.
- Leitzan hiru logelako etxebizitza salgai, zeharo berriturik, 31.000.000 pzta.
- Etxarri Aranatz, bi logela eta bi bainugela, 25.000.000 pzta.
- Lekunberrin eraikuntza berriko etxebizitzak salgai.

948 51 05 34 • 646 03 59 61
 Amazabal 37 behea • Leizta

AZOKA ▶

Udaberriaren etorrera, azokan ere nabaritu da

Lehenengo lore apaingarriak eta garaiko barazkiak saldu zituzten

PABLO ALBERDI

Atzokoan zeharo nabaritu zen udaberriaren iritsiera. Zerrenda loditu egin zen espezie berriekin, eta postuen itxura polita izan zen.

Aurtengo lehen kanpo libreko espinakak, borraiak, letxugak edota zainzuriak ikusi genituen atzo mahaie-tan eta, hauen ondoan, lehenengo udaberriko zizak saldu ziren, 120 eurotan. Bestalde, Berdura plazan animazio handia izan zen; baratzeko landareetan salmenta onak izan ziren, eta apaingarrietan, surfiniak erosi ahal izan ziren. Urteko garairik aproposena dela argi ikusi zen.

ATZOKO AZOKA ▶

	merk.	gares.
Berdura plaza		
Surfinia	2,20	-
Salbiaurfinia	1,00	-
Kizkur aza	6,00	-
Bertako produktuak		
Porrua	1,00	3,00
Madalenak	3,60	-
Inbaurrak	2,50	4,00

iragarki laburrak ▶

LANA

Garbitzaileak. Bi neska eskaintzen dira, orduka garbiketan aritzeko: etxebizitzak (garbiketeta osoak), sukaldeak, tabernak, atari eta ezkaratzak (bizilagunen elkarteak), lokalak, obrak... Eskarmentu handia. 657 719617 edo 943 683057.
Ileapaintzailea. Langilea behar dugu ileapaindegirako, lanegun erdirako. Bidali curriculum-a eta argazkia Tolosako lurre auzoa 20, 3. B helbidera.

SALGAI

Etxebizitza. Altzon, etxebizitza bifamiliar berria salgai. 200 m²-ko etxebizitza eta 160 m²-ko lorategia. 652 77 79 59.

GALDUTAKOAK

Bi zakur. Bi zakur galdu dira Ibarran. Artzai zakurra eta Setterra. 665 72 80 79.

ALEGIA ▶ BERTSOLARITZA

NEREA URBIZU

Alegiako I. Bertso Paper Lehiaketan, gaztetxoek txanda izan zen herenegun. Sei mutiko izan ziren Kultur Etxean, arratsaldean, bildu zirenak bertsoak sortzeari ekitera.

Aurretik emandako hiru gai erabili behar izan zituzten bertsoarako. Horietatik bat aukeratu behar zuten eta horren inguruan, euren erabakitako doinuak erabilia, nahi adina koplak idatzi. Proposatutako gaien artean, ondorengoak: *zer aldatuko zenuke zure ikastetxean? zer dago hobetzeko?* Hala, arratsalde osoa izan zuten bertsoak sortzeko, baina, izan zen ordu erdian bere lana bukatu zuenik ere. Hilaren 7rako espero dute Amaia Agirre eta Martin Aramendi epaileek hautaturiko irabazleen izenak ematea; dena den, denentzat izango dela sopsa-txoren bat iragarri dute antolatu-tzaileek.

Bestalde, helduek euren lanak aurkezteko azken eguna ere izan zen herenegun. Arratsaldean zehar, 13 bat lan bildu zituzten Kultur Etxean, denak ere kanta librearekin eta zehaztutako bertso kopuruarekin. Lan hauen sari banaketa jai giroan egitea espero dute, hilaren 28an, bertso afarian.

Sei gaztetxo aritu dira Lehenengo Bertso Paper Lehiaketan

Hilaren 7an jakingo dira irabazleen izenak; nagusien mailako sari banaketa, berriz, hilaren 28an egingo dute



Gaztetxoek isil-silik idatzi zituzten bertso landuak herenegun arratsaldean zehar, Kultur Etxean. N. URBIZU

lorategi zerbitzuak

Goiko LOREZAINZA

- ❖ Diseinuak
- ❖ Ereintzak
- ❖ Landatzeak
- ❖ Ureztatze sistemak
- ❖ Mantenimenduak

Tel.: 948 510 287 - 667 848 832

GOZOYA

IBÁÑEZ-GOZONA gozotegitik gure bezeroei jakinarazten diegu, Gorosabel 8an kokaturik dagoen eraikineko botatze lanak dirauen bitartean Gorosabel 4ean (IFAren ondoan) izango gara.

Denda honetan ere kafetegia, gozotegia eta okindegia egongo dira. Orduetgia 07:00etatik 20:30era jarraian izango da astelehenetik igandera, astelehen arratsaldean itxita egongo delarik.

Telefono bidezko eskaerak ohiko telefono zenbakietan egin daitezke: 943 65 05 39 eta 943 65 18 35

-Barkatu eragozpenak-

www.saldias-miguel.com

SM Saldías Miguel ASEGURUAK

- Tolosa 943 65 11 89
- Beasain 943 08 56 00
- Orain Anoetan 943 69 80 04

Kotxe, motor eta furgonetak -% 60

Etxebizitza, komunitateak, komertzioak, enpresak...

Konparaketa egin

% **EROSKI/bidaiak**

beste batzuk, bidaiariak nahastu egin nahiko zaituzte. **gurekin, gaza ezazu preziorik onenez**

Aste Santurako eta Pazko-Asterako egonaldien eskaintza berezia

Portugal ESPOSIBILE, OJALDIA OJALDIA, Oñateko... 100€ 16.639€	Salou Bortolan... 130€ 21.639€
Galicia VELLALDINA, KANAK BAKERA, OJALDIA OJALDIA... 180€ 25.949€	Cambrils OJALDIA OJALDIA, Bortolan... 173€ 26.759€

EROSKI bidaiak merezi duzu

IBARRA ▶ HEZKUNTZA



Uzturpe Ikastolako jaia

E. Ezeiza ▶ Uzturpe Ikastolak urteroko jaialdia ospatu zuen herenegun, Belabieta Kiroldegian. Jende ugari bildu zen adin ezberdinetako haurtxoen emanaldiak ikusteko. Aurtengo gaia kulturartekotasuna izan da, eta gauzatutako ekitaldiek honekin lotura zuten. **E. EZEIZA**

IBARRA ▶ PRESOKAK



Omenaldi jendetsua

E. Ezeiza ▶ Jende asko bildu zen, herenegun Maite Aranalde, Eider Ijurko, Ekaitz Aramendi eta Jon Mindegia-ga preso politikoei omenaldia egiteko. Ondoren, giza katea egin zuten udaletxe aurreraino. Urtemugako egitaraua ixteko, kantu afaria egin zuten. **E. EZEIZA**

BIDEGOIAN ▶ RALLYA



Errepidean urdina nagusi

N. Urbizu ▶ Xanti Artetxe izan zen azkarrena atzo Ikasberri Rally Sprint-ean, bere Peugeot 307arekin. Bigarren postua, berriz Joseba Zapirainek lortu zuen. Beste faborito nagusi zen Ramon Apalantzak matxura baten-
gatik lasterketa utzi behar izan zuen. **N. URBIZU**

TOLOSA ▶ KULTURA

Garai bateko erromeriak gogoan

Hendaiako, Iruñeako, Galdakaoko eta Tolosako 200 haur inguruk erromeria burutu zuten goizean kaleetan barna



Erromerian parte hartu zuen dantza taldeetako bat, kalejiran ari zela, Triangulo Plazan. **ESTI EZEIZA**

ESTI EZEIZA

Euskal dantzaleku erraldoi bilakatu zen atzo Tolosa. Euskal Herriko dantzari txikiek kaleak alaitu zituzten beraien dantza eta kantuekin. Goizean goiz, Hendaiako, Iruñeako, Galdakaoko eta Tolosako 200 haur inguru abiatu ziren herri guztia euskal erritmoekin zeharkatzeko. Lau taldeak bitan banatu, eta koreografia ezberdinak eginez aritu ziren eguerdira arte. Ondoren, bazkarirako denak bildu eta 16:30ak aldera umeentzako jaia egin zuten Plaza Berrian. Eguraldia lagun, giro berezia somatu zen.

Udaberriaren etorrerarekin batera, erromeri alai honek ikusmiran biltzen zen jendea alaitzea lortu zuen. Halaber, txalo zaparradak ez ziren falta, emanaldi bakoitzaren ondoren

Haurtxoek ez ezik, Udaberri Dantza Taldeko helduenek ere izan zuten atzokoan beren ospakizuna. Hauek iluntze aldera bildu ziren trikipotea egiteko. Ondoren, afaltzera joan ziren

Abastos plazara, eta amaitzeko, nola ez, dantzaldia eskaini zuten. Erromeri honetan, 50 urte hauetan Udaberri ikasberri dantzari gehienak bildu ohi dira.

Urteurrena dela eta, datoren urterako hainbat ekitaldi antolatzen ari dira tolosarrak. Urte guzti hauetan, euskal dantza tradizionalak zabaltzen egin dute lan, eta beste hainbatetan jarraitzeko asmoa dute.

Dantzari Txikien Eguna

Aurten, inoiz baino haur gehiagok eman dute izena Udaberri Dantza Taldearen ikastaroetan. Hori dela eta, urteroko Erromerian txikitxoenei txoko berezi bat egitea pentsatu zuten antolatzaileek. Jai honekin lotu nahi zutena zen, «jendea ohartzea Tolosan dantza talde bat badagoela». Atzokoa lehenengoia izan zen, eta, Haritz Iglesias, entsegetako ardura-dunaren esanetan, «ongi ateraz gero hurrengo urteetan ere errepikatzeko asmoa dugu».

- ▶ hilberriak
- ▶ urteurrenak
- ▶ eskertzak

Gipuzkoan
50.000
etxetara

ESKELAK
19:00ak arte hartzen dira
Telf.: 943 65 56 95
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info

HITZA guztietan prezio beragatik

KIROLA ▶

Eski-alpinismoaren puntan

Urte gutxi daramatzate Joseba Tobar eta Joseba Ormazabal tolosarrek eski alpinismoa praktikatzeko, baina postu bikainak erdietsiak dituzte jada

NEREA LIZARTZA

Urte gutxi buruan izan bada ere, eski alpinismoaren gailurrean egotea zer den jakiteko parada izan dute Joseba Ormazabal eta Joseba tobar tolosarrek. Hogeita hamar urte ditu Joseba Tobarrek, eta hogeita hamahiru, berriz, Ormazabalek. Aspal didanik dute mendiko eskian ibiltzeko afizioa; dena dela, duela gutxi hasi ziren «ofizio» bihurtzen eta serio jokatzeko txapelketetan. Zehazki, kirol horrek pizten zien ikusminak bultzatuta hasi ziren; hasi eta berehala ekin zioten norgehiagoketan parte hartzeari. «Hasiera batean jakinmin hutsez joaten ginen txapelketetara; sailkapenetan ez genituen oso postu onak lortzen. Ondoren, gogor entrenatzeari ekin genion, eta horrekin batera gure postuek ere gorantz egin zuten», azaldu diote HITZARI bi eskiatzaileek.

Elkarrekin ekin zioten erronkari; karrera berdintsuetan lehiatzen hasi ziren eta maila ere antzekoa zuten. Binakako txapelketetan normalean ez dira elkarrekin aritzen lehian; edonola ere, biak elkarrekin aritzen diren txapelketa batzuk ere badaude. Oro har, bide berdinak jarraitzen ari diren arren, jomuga bera zuten, eta oraindik ere halaxe dute: podium postu ona izatea.

Hasieran beren kontura aurkezten ziren norgehiagoketara, baina laster Federazioan inskribatu, eta haren izenean joaten hasi ziren. Denbora gutxi buruan, eski alpinismoaren alorrean sortu berria zen Euskal Selektzioako kide egin ziren, eta lehiaketetan honen izenean parte hartzen hasi. «Askoz babestuagoak gaude Selektzioarekin; gainera, lehiaketetako izen-emateak eta horien kostuak eurek ordaintzen dizkigute, besteak beste», azaldu dute eskiatzaile tolosarrek.

Zortzi lagun dira guztira Selektzioan. «Oraindik partaide-tza baxua duen kirola da eski alpinismoa; ezjakintasuna dago kirol honen gainean» esan dute Tobarrek eta Ormazabalek.

Urtearen banaketa

Urtarrilean hasten dute txapelketen denboraldia, baina, horretarako, urte osoan zehar en-



Denboraldi honetan, Picos de Europán, Joseba Ormazabal eta Joseba Tobar eskiatzaileak. HITZA

trenamendu gogorak egin behar izaten dituzte. Irailean ekiten diote serio entrenatzeari; lanetik atera eta zuzenean joaten dira. Peio Gorostegi dute biek entrenatzaile. Oro har, gure inguruetan elurrik izaten ez denez, mendian zehar ibilaldiak egin, rolleskian maldan gora ibili edota antzeko ekintzetan aritzen dira.

Abendu aldera, aurten esaterako, Baqueira Beret-en egon dira Euskal Selektzioako gainontzeko kideekin. Astebetez egon dira kontzentrazio batean; fisikoki eta animikoki txapelketek irauten duten hilabeteetarako prestatzen euren burua. Behin urtarrila iritsita, ia atsedenik gabe, asteburuz asteburu lehiaketetan ibiltzen dira; noski, aste tartean entrenamenduak egiten jarraitzen dute.

Apirilaren amaiera bitartean norgehiagoketan zentratuta ibiltzen badira ere, eskiaz gain, badute beste kirol afiziorik;



Txapelketa bat jokatu ostean, beste kide batekin. HITZA

«serio» eskian aritzen badira ere, beste kirol batzuk praktikatzeko atsegin dute biek, baina beti ere maila baxuagoan.

Ibilbidea eta podioa

Ibilbide luzea egin dute orain arte eta lortutako sarien zerrenda ere ez da gutxiagora-

koa. Iazkoa izan zen Joseba Ormazabalentzat urterik onena: Euskadiko Txapelketa irabazi zuen, Espainia mailan bakarka zazpigarren postuan gelditu zen eta binakako alorrean hirugarren; horiek dira iazko denboraldian beste hainbat eta hainbaten artean erdietsitako postuak. Aurtengo denbo-

JOSEBA ORMAZABAL
 ESKIATZAILEA

«Iaz garaipen ugari lortu nituen, eta aurten okerrago hasi dut; Euskadiko Txapelketa irabaztea dut jomuga»

JOSEBA TOBAR
 ESKIATZAILEA

«Suitzako lehia gogor batekin amaituko dugu denboraldia; batez beste, 10 orduz ibili beharko dugu eskien gainean»

raldia okerrago hasi duen arren, laster jokatu den Euskadiko Txapelketa irabaztea du jomuga tolosarrek. Joseba Tobarrek garaipen ofizialik eskuratu ez badu ere, jokatuak lehiaketen sailkapenetan gorako postuetan egotea lortu du.

Denboraldiari amaiera hilabete hau bukatzean emango diote, Suitzara burutuko den txapelketa batean. «Nahiko gogorra izango da; hamar orduz baino gehiago ibili beharko baitugu eskien gainean».

Aurtengo denboraldian, beste behin ere, Alpeetan —Frantzia— jokatzeko den Pierra Menta norgehiagoka gogorrean hartu dute parte. Tobarrek bigarren aldian zuten eta Ormazabalek, oster, hirugarrena. Binaka jokatzeko den txapelketa hau «mundu mailan dagoen mendiko karrerarik garrantzitsuen» dela azaldu dute bi kirolariak. «Hemen inguruko txapelketetan nahiko ondo ibiltzen garen arren, hain munduko eskiatzaileak onenak lehiatzen dira; beraz, ia ezinezkoa da podioa zapaltzea». Edonola ere, aurtengo eskiatzeko «baldintza txarrak» zeudela azpimarratu dute; belauetaraino iristen zitzaizen elurra, eta horrek are gogorragoa egin zien erronka burutzea.

Materiala

Hasieran lehendik zeukaten materialarekin ibiltzen baziren ere, lehiaketen munduan sartzean berrikuntza beharrezkoa dela azaldu dute. «Denbora asko igarotzen dugu eskien gainean eta, beraz, erraz hondatzen da materiala».

Joseba Ormazabalen kasuan, baina, gastua murriztagoa da; izan ere, kirol denda batek ematen dizkio norgehiagoketan aritzeko beharrezkoak dituen material guztiak. Horrekin, beraz, kirolaren kostua ikaragarri murrizten da, gainontzean «ikaragarria» baita.



AGENDA ▶

DEIALDIAK

Ibarra. Bizi Nahi jubilatuko elkarteak Iratxera irteera antolatuta du hilaren 8an Irantzuko monastegia eta Lizarra bisitatuz. Izen-ematea, elkartean.
Orendain. Bozue Udaltalde 21ek deituta, bilera udaltxeko pleno aretoan 12:30ean. Herriko ekintza plana burutzea izango da helburua.
Tolosa. 55eko kintoek bere festa egingo dute hilaren 8an: meza 13:00etan eta ondoren bazkaria Leaburuko ostatuan. Izen-ematea, 943 67 15 48 zenbakian.
Tolosa. Kirikiño aisialdi taldearen guraso formazio eguna. 'Hezkuntza afektibo sexuala' izango du hizpide Eduardo Dovale Muñños psikologoak. Hirukide Jesuitinetan: 10:00etatik 13:30era. Otoitza eta hitzaldia; 14:00etan bazkaria; 16:00etan kirol saioa.
Tolosa. 7-13 urte bitartekoentzako udalxuei buruzko informazioa, eta izen-ematea hilaren 7a arte, Gazte informazio bulegoan (Kultur Etxean) 09:30etik 13:30era eta 17:00etatik 19:00etara.

ERAKUSKETAK

Alegia. Jesus Lopez Zulueta koadroak. Hilaren 21a arte izango dira ikusgai, Jubilatuen tabernan.
Tolosa. *Poesia movil* Enrique Zalduaren pinturak. Hilaren 22ra arte ikusgai, Aranburu Jauregiko erakusketa aretoan.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
Areso. Goizueta, F. Loidi etxea. 112 Tolosa. Olarreaga, A. Korreo kalea, 2. 943 67 01 28.

Bihar
Leitza. Erbiti, O. Lizarraga, 7. 112. Ibarra. Iturrioz, I. Euskal Herria, 3. 943 67 09 15.

IRRATIA

Txolarre irratia (107.5, 101.2 FM)
10:30-13:00. *Hitzak hegan* (errepikapena)

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Ikaspilotaren festa

TOLOSA ▶ Gipuzkoako 20 ikastetxetako 280 ikasle inguru bildu ziren atzo, Beotibar pilotalekuan, Ikaspilotaren azken topaketan



Ikasleek ere adi-adi jarraitu zituzten jolasak, nahiz senti zitekeen giro urduri eta kilikagarri hori ere. E. EZEIZA

NEREA URBIZU

Ikasle kopuru polita bildu zen atzo Ikaspilotaren festan, Beotibar pilotalekuan; Gipuzkoako 20 ikastetxe ezberdinetako Lehen Hezkuntzako 5 mailako 280 ikasle inguru, hain zuzen; eta guztiek ere, euskal pilotako modalitate desberdinak ezagutzeko aukera izan zuten. Azkenekoa izanik, jendetxuenaren izan zen, eta jolasez gain, musikaz gozatzeko aukera ere izan zuten bertaratu zirenek, Etxabe Anaia musikari taldea aritu baitzen goiz osoan trikiti doinuak eskainiaz.
Atzokoa, Kutxak antolatu eta Ikaspilotak sustatzen dituen azken topaketa izan zen; orotara 20 egin dituzte Gipuzkoako hainbat herritan, eta 3.000 neska-mutil inguruk hartu dute parte. Topaketa hauen helburua, pilotarekin zerikusia duten euskal jolasak indartzea eta ikasleen arteko harremanak lantzea izan da, eta ikasleak motibatzearen jolasak eta lehia erabili dituzte tresna moduan.



Ikaspilotak proposatutako jolasetako batean. E. EZEIZA



Etxabe anaia musikari taldea goiza giroten aritu zen. E. EZEIZA

AGURRAK ▶

Urtebetetzea, jaiotza, ezkontza, jaunartzea, urrezko ezteiak, agurrak... hemen argitaratzeko etorri HITZaren egoitzara; ekarri argazkia



URTE ASKOAN
Garazi Beloki Tobar (Alegia).
Bihar 3 urte. Zorionak Amalur eta etxekoan partetik.



URTE ASKOAN
Irati Urreta Elizegi (Alegia).
Bihar 9 urte. Zorionak etxekoan partetik, batez ere Izaroren partetik.

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

▶ HITZaren egoitza Tolosa Araba etorbidea, 5 behea

▶ HITZaren egoitza Leitza Udaltxeko bulegoa

hitza
agurren tartea

Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...